

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2021eko UZTAILAREN 29an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2021eko uztailaren 29an, arratsaldeko 15.30 orduetan, Maite Arana Perez Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira eginiko bilkura honetan.

ZINEGOTZIAK:


Vicente Garcia Momblona
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez
Mireia Ruiz Delgado
Maialen Alonso Labandibar
Jesus Maria Tejada Cantero
Aitor Beistegui Fiallegas zinegotzia

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:
➤ 2021eko ekainaren 24an egindako ohiko bilkura/ Sesión ordinaria de fecha 24 de junio de 2021.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
- 4. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 2021eko 3. Eta 4. Hiruhilabeteko ekarpenak burutzea./Realizar las aportaciones correspondientes al 3. y 4. Trimestre a la Mancomunidad de Servicios de Aiztondo.**
- 5. IZFE S.A. Informatika zerbitzuen Foru Elkartearen eta Larraulgo Udalaren arteko Lankidetzaren onespena. / Aprobación del convenio de colaboración entre IZFE, S.A. Sociedad Foral de servicios informáticos y el Ayuntamiento de Larraul.**
- 6. Larraulgo udal pilotalekuko kanpoko arotzajeak hornitu eta jartzeko obren kontratua kontratatze lanen esleipena./ Adjudicación del contrato de ejecución de las obras de suministro y colocación de las carpinterías exteriores del frontón municipal de Larraul.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

7. **Sgae-ek eginiko proposamenaren onespena./ Aprobación de la propuesta realizada por Sgae.**
8. **2020ko Kontu Orokorraren behin betiko onespena, hala bada/Aprobación definitiva de la Cuenta General del 2020**
9. **2/2021 zenbakidun Kreditu Aldaketaren hasierako onespena/Aprobación inicial de la modificación de créditos nº 2/2021**
10. **Beste batzuk/Otros.**
11. **Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.**

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN ADIERAZTEN DEN UDALBATZARRETAKO AKTA ONESTU, HALA BADAGOKIO

- ▣ 2021 urteko ekainaren 24an egindako Udaltzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren aho batez onesten dute.

BIGARRENGO PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA


Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 78/2021etik 98/2021era Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARRENGO PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

URKAMENDI MOTOR	388,13
BERRI LANTEGIA	50,67
TOLOSALDEA GARATZEN	250,00
BERRI LANTEGIA	24,70
EZEIZA	187,55
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	391,27
BERRI LANTEGIA	40,99
ITZIAR UZKUDUN	95,60
MATTIN GIZARTE ABENTURA	364,80
MATTIN GIZARTE ABENTURA	841,59
BASAJAUN LIBURUDENDA	268,00
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	993,11
BABESA SUZAI	233,88
BABESA SUZAI	205,54
ERROITZ	119,16
ALKAIN	8,59
KIROLZER	23,35



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ZU ETA BIOK	1.189,83
MELLIFERA	2.039,86
MAQUELSA	41,21
EBA ERKIZIA	794,53
SECURITAS DIRECT	47,19
GRENKE	129,41
SECURITAS DIRECT	49,01
BERRI LANTEGIA	73,06
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	4.317,54
GUREAK	1,02
OSCAR GALINDO	121,00
SECURITAS DIRECT	35,94
NORTEGAS	73,89
NORTEGAS	192,43
IBERDROLA	23,94
IBERDROLA	79,66
IBERDROLA	45,46
IBERDROLA	86,08
IBERDROLA	144,39
MOVISTAR	27,59
MOVISTAR	97,41
MOVISTAR	147,87
MOVISTAR	97,41
MOVISTAR	146,95
MOVISTAR	27,59
MOVISTAR	13,85

Udalbatza honek, **ahoko batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU


BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **14.531,05** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

LAUGARREN PUNTUA

AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2021EKO 3. ETA 4. HIRUHILABETEKO EKARPENAK BURUTZEA

Ikusirik 2021eko uztailaren 2an Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2021 ekitaldiko 3. eta 4. hiruhilabeteetan sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Larraulgo Udalak burutu beharreko ekarpena 18.000,00 eurokoa dela adierazten den. Ekarpena, Larraulgo udalak eskatuta, ondoren zehazten den moduan banatzen da:

-Gizarte zerbitzuak: 15.500,00 euro



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

-Kultura: 2.500,00 euro

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela 2021 urteko udal aurrekontuetako 421.230.00.01 eta 421.330.00.01 partidetan.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 18.000,00 eurotako ekarpena burutzea 2021 ekitaldiko 3. eta 4. hiruhilabetean sortu daitezkeen gastuei aurre egiteko. 2021 urteko udal aurrekontuetako 421.230.00.01 eta 421.330.00.01 partiden kargura. Kontzeptu hauetan banatuta:

-Gizarte zerbitzuak: 15.500,00 euro

-Kultura: 2.500 euro

BIGARRENA.- 18.000,00 eurotako gastua onartzea.

BOSTGARREN PUNTUA

IZFE S.A. INFORMATIKA ZERBITZUEN FORU ELKARTEAREN ETA LARRAULGO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN ONESPENA


Ikusita Gipuzkoako Foru Aldundiak informatika -zerbitzuak eskaini eta ematen dizkiela Lurralde historikoko udalei nahiz bestelako toki-erakundeei, informatika Zerbitzuen Foru Elkarte-Sociedad Foral de Servicios Informaticos S.A.-ren bitartez, aldundiaren bitarteko propio pertsonifikatua izaki.

Ikusita Informatika Zerbitzuen Foru Elkarteak, S.A. merkataritzarako Entitatearen Estatutu Sozialen 3. Artikuluak honek xede soziazat Aldundiarentzako zerbitzu informatikoak zerbitzatzeara eta zerbitzu horien eragin-eremuan bere helburuak betetzeko berarekin elkarlanean aritzea duela ezartzen du.

Zuzenbidearen ikuspegitik, laguntza hori aurrera eramateko Gipuzkoako Foru Aldundiak eta EUDEL elkarteak lankidetzarako esparru-hitzarmena sinatu dute eta hitzarmen hori oinarri hartuta sinatzen dira gero udal edo toki-erakunde bakoitaren eta IZFE S.A-ren arteko berariazko hitzarmenak.

Ikusita 2002. Urtean izenpetu zela Lankidetzarako esparru hitzarmen hori duela gutxi berriro egin dela.

Ikusita, lankidetzarako esparru-hitzarmen horren arabera, bere lurraldeko udalek nahiz bestelako toki-erakundeei arlo honetan behar duten laguntza teknikoa bere foru sozietate publikoaren bitartez emateko



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

konpromisoa hartzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak, hari alde aurretik mandatua emanda.

Ikusita berariazko hitzarmenetan, berriz, delako toki-erakundeari dagokionez garatu beharreko jarduketak eta alderdi bakoitzaren betebeharrak zehazten direla, betiere, esparru-hitzarmenak modu orokorrean aurreikusi dituen estipulazioei jarraikiz.

Ikusita aipaturiko hitzarmena prestatu dela eta honen helburua IZFE S.A. sozietateak Larraulgo Udalari egingo dizkion informatika-zerbitzuak zehaztea duela helburu. Halaber, zerbitzuak egiteko era eta baldintzak zehaztuko direla.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: IZFE SA., Informatika zerbitzuen Foru Elkartearen eta Larraulgo udalaren arteko Lankidetzeta-Hitzarmena onestea, hitzarmen honen helburua, IZFE S.A. sozietateak Larraulgo Udalari egingo dizkion informatika-zerbitzuak zehaztea duela helburu. Halaber, zerbitzuak egiteko era eta baldintzak zehaztuko direla.

BIGARRENA: Maite Arana Perez, Larraulgo Alkatesa ahalmenu aipaturiko hitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri IZFE, S.A., informatika zerbitzuen Foru Elkarteari ematea.


LAUGARRENA: Akordio hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udaleko Iragarki Taulan argitaratzea.

SEIGARREN PUNTUA

LARRAULGO UDAL PILOTALEKUKO KANPOKO AROTZAJEAK HORNITU ETA JARTZEKO OBREN KONTRATUA KONTRATATZEKO LANEN ESLEIPENA

Kontuan harturik, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 28. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako -LCSP 2017-, Udalbatzak beharrezkotzat jotzen duela Larraulgo udal pilotalekua egokitzeko obrak egiteko kontratua izapidetzea, 102.576,64 euroko balioarekin, eta lizitaziorako oinarritzko aurrekontua 102.576,64 eurokoa.

Udalaren Zerbitzu Teknikoen txostena ikusi da. Bertan, alderdi teknikoak eta jarduketa horren bideragarritasuna zehazten dira, eta lizitazioa arautuko duten Baldintza Teknikoen Orriak jaso dira dagokion memoria baloratuan.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Kontuan hartuz, Alkatetzaren 75/2021 Ebazpenaren bidez, obren memoria tekniko baloratua onetsi zela, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 236.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Ikusirik kreditu atxikipena, aurrekontuko 1 0000.622.342.00.01 aplikazioaren kontura, 102.576,64 eurokoa, tramitatu beharreko zerbitzuen kontratuaren balio zenbatetsia.

Ikusita obraren zuinketa-akta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL 2017-) 236. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

Ikusirik Udal honetako Idazkaritzak egindako kontratazio espedienteari buruzko txosten juridikoa.

Ikusirik kontratu hori arautuko duten administrazio klausula partikularren orriak onartu direla.


Ikusirik Udal honetako Kontu-hartzaileak emandako aldeko fiskalizazioa.

Ikusirik, Udalbatzak, 2021eko ekainaren ekainaren 24ko Udalbatzaren Osoko Bilkuran, aipatutako kontraturako kontratazio-espedientea onartu zuela, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 116. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat etorritz (2017ko SPKL), eta dagokion prozedura ireki erraztuaren deialdia egin zela, 2017ko azaroaren 8ko Legeko 158. artikuluekin bat etorritz.

Ikusirik Kontratazio Mahaiak egindako proposamena, eskaintza bat aurkeztu baita (lizitatzailerak: OSTARBI ERAIKUNTZA ETA ZERBITZUAK, S.L.) eta ondoko puntuazioa lortuz:

Lizitatzailerak	1	2	3	Guztira puntuaketa
Ostarbi Eraikuntza eta Zerbitzuak, S.L.	23 ptu.	65 ptu.	10 ptu.	98 Puntu

Kontuan izanda sektore publikoko kontratazioari buruzko araudian jasotako aginduak bete direla eta, bestetik, eskaintzarik onuragarriena OSTARBI ERAIKUNTZA ETA ZERBITZUAK, S.L. enpresak aurkeztutakoa dela. Era berean, 2020ko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 159.4 artikuluan ezarritakoarekin bat eskatutako agiriak aurkeztu ditu -LSP.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoarekin bat etorritz, Udalbatza da kontratazio-organo eskuduna.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU:

LEHENA- OSTARBI ERAIKUNTZA ETA ZERBITZUAK, S.L. enpresari esleitzea Larraulgo udal pilotalekua egokitzeke lanak egiteko kontratua, prozedura ireki erraztuaren bidez izapidetua, izapide arruntekoa, 84.737,99 eurokoa (BEZ kanpo), 4 hilabeteko epean.

Esleipenaren arrazoiak:

Eskatutako baldintza guztiak betetzen dituen eskaintza bakarra aurkeztu da.

BIGARRENA.- OSTARBI ERAIKUNTZA ETA ZERBITZUAK, S.L. enpresari eskatzea kontratu hori formalizatzeko hamabost egun balioduneko epea izango duela, lizitatzailerei esleipen hau jakinarazten zaienetik hasita, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 153. artikuluan aurreikusitako moduan.

HIRUGARRENA.- Kontratazio honen formalizazioa kontratugilearen profilean argitaratzea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 154. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

LAUGARRENA.- Obra-zuzendaritza izendatzea kontratu honen arduradun, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 62. artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

BOSGARRENA.- Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari, inskriba dezan, esleitutako kontratuaren oinarritzko datuak jakinaraztea; besteak beste, esleipendunaren izena, esleipenaren zenbatekoa eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren banakapena.


ZAZPIGARREN PUNTUA

SGAE-k EGINIKO PROPOSAMENAREN ONESPENA

Ikusita Sociedad General de autores y editores, hau da, SGAE-rekin Larraulgo Udalak, 2013 urtetik hona 2.619,15 eurotako zorra duela.

Ikusita, Larraulgo Udalak borondatea duela SGAE-rekin duen zorra kitatzeko.

Ikusita Larraulgo Udalak, Joseba Palacios SGAE-ko ordezkariarekin adostu duela gaur egun duen zorra kitatzea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusita, Larraulgo Udalak duen borondatea, SGAE-Ko ordezkariak jakinarazi dio Larraulgo Udalari, EUDEL ekin duten hitzarmenaren arabera, %25eko kitapena egingo duela Larraulgo Udalak duen zorrari. Beraz, kitapena aplikatu ondoren Larraulgo Udalak 2.056,80 euroko zorra izango du SGAE-rekin.

Ikusita Larraulgo Udalak 2021eko aurrekontuetan ez duela zor honi aurre egiteko diru-kopuru adina, zorra bi urtetan kitatzeko adostasunera iritsi dira Larraulgo Udalak eta SGAE-ko ordezkariak.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udalak, Sociedad General de Autores y Editores, SGAE-rekin duen 2.056,80 eurotako zorra onartzea eta bere ordainketa egin dadin agintzea. Ordainketa bi zatitan egingo da:

- 1.go ordainketa, hau da, 1.127,50 euro, erabaki hau hartu ondoren.
- 2.go ordainketa, hau da, 929,30 euro, 2022ko aurrekontuak onartu ondoren.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Sociedad General de Autores y Editores, hau da, SGAE-ri ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

2020KO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONESPENA, HALA BADA


Ikusirik 2020 ekitaldiko Larraulgo Udaleko Kontu Orokorra 15 lanegunez jende aurrean jarri dela, bere iragarkia Udaleko Iragarki Taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, edonork aztertu eta egoki zituen alegazioak aurkeztu zitzaizkien.

Ikusirik 2021eko ekainaren 10ean argitaratu dela iragarkia GAOn eta jendaurreko epea ireki dela 2021eko ekainaren 11tik uztailearen 1era bitartean, biak barne, ez delarik bere aurka inolako iradokizun zein erreklamaziorik aurkeztu.

Ikusirik Udaleko Behin behineko Idazkariak Kontu Orokorrari buruz egin duen txostenean dioena.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENA.- Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Ogasunen Aurrekontuari buruzkoak, xedatutakoarekin bat etorri Larraulgo Udaleko 2020 ekitaldiko Kontu Orokorrari behin betiko onespina ematea.

BIGARRENA.- Akordio honen berri Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA **2/2021 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPINA**

Larraulgo Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Eztabaidatu ondoren, Udalbatza honek, aho batez, honako hau


ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.421.230.00.01 2021	AIZTONDO ZERB.MANKOM.GIZAR. ZERBIT.	20.000,00	5.500,00	25.500,00
1 0000.421.330.00.01 2021	AIZTONDO ZERB.MANKOM. KULTURA	4.000,00	500,00	4.500,00




LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

1 0000.210.163.00.01 2021	AZPIE ETA OND.GAST.KALE ETA BIDE GARB.	2.500,00	2.000,00	4.500,00
1 0000.210.920.00.01 2021	AZPIEGIT.ETA OND.GAST.UDALETXEA	1.700,00	60,00	1.760,00
1 0000.210.333.00.02 2021	AZPIEG.ETA ONDASUN GASTUAK: MUSEOA	500,00	60,00	560,00
1 0000.210.164.00.01 2021	AZPIEGIT.ETA OND.GAST.HILERRIA	150,00	200,00	350,00
1 0000.226.920.00.99 2021	BESTELAKO HAINBAT GASTU	105,00	50,00	155,00
1 0000.422.410.00.01 2021	BESTE ENTIT.EKARP.TOLOMENDI	2.100,00	200,00	2.300,00
1 0000.689.924.00.01 2021	AURREKONTU PARTEHARTZAILEAK	6.000,00	800,00	6.800,00
GUZTIRA		37.055,00	9.370,00	46.425,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.000.00.01 2021	GERAKINAK	9.370,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			9.370,00

BIGARRENA: Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HAMARGARREN PUNTUA
BESTE BATZUK

Ez dira aurkezten.

HAMARGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 16:35 orduak direnean Alkate andreak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.